# 2025/2026KO IKUSKARIEN LEKUALDATZE-LEHIAKETA APLIKAZIO INFORMATIKOAREN GIDA

(2025, abendua)

## Eskaera entregatzea

Eskabidea aurkezteko interneteko helbide honetara jo behar da: https://hezigunea.euskadi.eus/eu. Nabigazio hobea izateko, Firefox edo Chrome esploratzaileak erabiltzea gomendatzen dugu.

## 1. APLIKAZIORA SARTU

https://hezigunea.euskadi.eus helbidean sartzerakoan pantaila hau agertzen da:




Hizkuntza-bertsioa aldatu ahal izateko, bi aukera daude:

**1go aukera:**

Klik egin pantailaren goiko ezkerreko aldean agertzen diren 3 marratxoetan. Irekitzen den lehiatilan gogoko duzun hizkuntza aukeratu beharko duzu.




**2.go aukera:**

Gaztelaniazko bertsioan sartu nahi baduzu, sartu helbide hau: https://hezigunea.euskadi.eus/es

Euskarazko bertsioan sartu nahi baduzu, sartu helbide hau: https://hezigunea.euskadi.eus/eu

Lehenik eta behin, saioa hasi behar duzu NANarekin eta pasahitzarekin identifikatuta:

- NAN zenbakia eta pasahitza sartu




- Pasahitza gogorazi ezean, sakatu

Pasahitza ahaztu duzu

eta ondorengo pantaila bete:




Behin gakoak sartuta (NAN eta pasahitza), pantaila hau agertuko da:




Eremu pertsonalaren barruan




Aukeratu 




Administrazio-izapideak zerrendan aukeratu:




Ondorengo pantaila agertuko da:




Hemendik ESKABIDEA bete daiteke **ESKAERA AURKEZTEA** sakatuta.

Lehenik eta behin, atal honetan daukazun "Eskabidea" deskargatu behar duzu. Bete eta gorde ezazu zure ordenagailuan, eta, ondoren, erantsi "Examinar" atalaren bidez. Azkenik, «Gorde» botoiari eman behar diozu.




Eskaera bakarrik entregatu behar baduzu (dokumenturik atxikitu gabe), sakatu **"Amaitu dokumentazioa entregatzea eta erregistratzea"** botoia. Erregistro elektronikoko egiaztagiria deskargatuko da (irten aurretik, inprimatu eta/edo gorde, behin bakarrik deskargatuko baita).

Eskaerari dokumentuak gehitu behar badituzu (pdf formatuan), «Dokumentuak» atalean atxikitu, «Examinar» botoiaren bidez. Ondoren, sakatu  ikonoa.




Atxikitutako dokumenturen bat ezabatu nahi baduzu, aukeratu eta sakatu  ikonoa




Azkenik, sakatu **“Amaitu dokumentazioa entregatzea eta erregistratzea”** botoia. Erregistro elektronikoko egiaztagiria deskargatuko da (irten aurretik, inprimatu eta/edo gorde, behin bakarrik deskargatuko baita).

Entregatu eta erregistratu ondoren, **“Entregatutako eskaera bistaratzea”** atala agertuko da. Atal hau bistaratzea gomendatzen da, entrega zuzena dela egiaztatzeko.

Eskabide bakarra egin ahal izango du. Bigarren eskaera egiten saiatzen bazara, mezu hau agertuko zaizu:

> **Dokumentazioa entregatu duzu dagoeneko. Kontsultatu eta/edo aldaketak egin ditzakezu Irakaslegunearen “Nire eskaerak” atalean.**

Mezuan adierazten den bezala, **"Nire eskaerak"** atalaren bidez, entregatu dituzun dokumentuak kontsultatu ahal izango dituzu. Era berean, eta eskabideak aurkezteko epea irekita dagoen bitartean, jada entregatutako dokumentu baten ordez beste bat aurkeztu ahal izango du parte-hartzaileak. Azken dokumentu horren entrega erregistratuko da, eta aurretik entregatutakoa ezabatua izango da.

## IRAGARKI TAULA

Lekualdatze-lehiaketaren hasierako pantailaren beheko aldean lehiaketari buruzko berri desberdinak agertzen dira. Berri horiek gaurkotzen dira, lehiaketaren prozesua aurrera doan heinean.